

# iRRiA

aldizkaria

ONGI Etorri!



IRREN LABURAK 0 zenbakia - 5,75 €



41 urte daramatzagu zurekin, produktuak eta zerbitzuak eskaintzen. Milaka lagun zure aurrezkiarekin eta zure ongizatearekin konprometituak. Orain beste aurrerapauso bat eman dugu. Gure markako produktuetatik, landare olio partzialki hidrogenatuak edo "trans gantzak" deitzen diren horiek kendu ditugu.

**ZURE ONGIZATEAREN ALDE, EROSKI zurekin.**

# ZURE BIHOTZAREN

MESEDERAKO

TRANS  
KOIPEAK  
KENDU  
DITUGU

EROSKI PRODUKTUAK



**Informazio gehiago:**

[www.eroski.es](http://www.eroski.es)

902 540 340



**Ongi etorri!**

Irrien lagunak gustura gaude. Alai. Inoiz baino zabalagoa dugu irribarrea. Haurdunaldi luzearen ondoren, Pirritxek bi sudur gorri txiki ekarri baititu gure artera: Pupu eta Lore.

Hemendik aurrera, eskutik helduko diegu, eta elkarrekin heziko ditugu. Kolorez eta musuz betetako mundua nahi badugu, denoi baitagokigu haurren hezkuntza. Ez eskolari soilik. Gurasoen eta herri osoaren ardura da etorkizuna mila koloreko zelaia izatea.

Bidea elkarrekin egiteko, gure haurrak denon artean hezteko, Irrien Lagunak kluba sortu dugu. Familia handia izango gara aurrerantzean. Pupu eta Lore jaiotzeak eman digun indarrak, grinaz eta poz taupadaz, herri hau eta koloretako mundua sortzen segi nahi dugu, euskaratik eta euskaraz.

Irria aldizkaria bitarteko garrantzitsua izango da asmo horretan. Hilero ahaleginduko gara hurrei irribarrea margotzen, mundua erakusten, eta musuak bidaltzen, gure hitzen, abestien eta marrazkien leihotik.

**.es**

Hoy nuestra sonrisa es más soleada que nunca. Estamos contentas, contentos. Pupu y Lore acaban de nacer, y para educarlos entre todas y todos, hemos creado Irrien Lagunak. Un club que pretende dibujar un mundo lleno de colores. Un mundo donde quepan todos los mundos.

Esta revista mensual será el espejo de nuestra sonrisa. De nuestras palabras y canciones. De todos nuestros sueños.

**.fr**

Aujourd'hui notre sourire est plus gai qu'autrefois. Nous sommes heureux. Pupu et Lore viennent de naître, et pour les éduquer avec tout le monde, nous avons créé Irrien Lagunak, un club qui veut montrer un monde plein de couleurs; un monde où beaucoup de mondes puissent partager leur expériences.

Ce mensuel sera le miroir de notre sourire, de nos paroles et de nos chansons. Enfin, de tous nos rêves.

## Aurkibidea

### 4. MARTINBERTSO.

Testua: Mitxel Murua.

Bertsoa: Maialen Lujanbio. Marrazkiak: Jose Angel Lopetegi

### 9. FILOSO TXIKIAK. Zer da lagun bat?

Testua: Sophie Furlaud. Marrazkiak: Dorothee de Monfreid

### 14. PIRITX PORROTX ETA MARIMOTOTS.

Pirritx haurdun

Testua Mitxel Murua, Marrazkiak Julen Tokero

### 20. MARIKALANBRE. Zenbakien misterioa!

Testua: Mitxel Murua, Marrazkiak: Jose Angel Lopetegi

### 24. PUPU ETA LORE

Testua: Mitxel Murua. Marrazkiak Julen Tokero

### 28. LARGABISTA. Dena ongi doa

Testua: Mitxel Murua. Marrazkiak: Juan Carlos Nazabal

### 32. OLIBATXO

Testua Mitxel Murua, Marrazkiak Julen Tokero

### 36. ANE PIRATA ETA PATAKON

Testua: Mitxel Murua. Marrazkiak: Juan Carlos Nazabal

### 38. JOKOAK

Marrazkiak: Itsaso Bon

### 40. ERRIMEN OSTADARRA, Maialen Lujanbio.

Testua eta bertsoak: Uxue Alberdi.

Marrazkiak: Juan Carlos Nazabal

IRRI A aldizkaria

Argitaratzailea: Irrien Lagunak, SL

Egoitza: Martin Ugalde kultur parkea

Gudarien etorbidea, z/g

20140 Andoain, Gipuzkoa

Posta elektronikoa:

[irria@irrienlagunak.com](mailto:irria@irrienlagunak.com)

Lege Gordailua: SS-1381-2010

Koordinatzailea: Gari Berasaluze

Maketatzailea: Olatz Goikouria

Publizitatea:

[publi@irrienlagunak.com](mailto:publi@irrienlagunak.com)

Harpidetza eta bezero arreta:

902-820 806

Tirada: 100.000 ale

Inprimategia: Leitzaran Grafikak





ZER DA IRRIA, MARTINBER?

IRRIA, BIHOTZETIK ATERATZEN DEN ADIERAZGARRIA. IRRIA GAUZA ASKOREKIN LOTZEN DA.

IRRIA ETA XIRRIA. IRRI-XIRRI.

IRRIA ETA LARRIA. IRRI-LARRI.

IRRIA ETA EGARRIA. IRRI-EGARRI.

IRRIA ETA MAITAGARRIA. IRRI-MAITAGARRI

Martinbertsok barre egin zuen.  
—Ederto! Gustuko dugu irri-xirria; xirriak kilimari irria ateratzen diolako.  
Beti gaude irri-egarriz.  
Irri-larria pixalarria bezalakoa da, gogoia etortzen denean onena lasai egitea.  
Irrietan ederrena irri-maitagarria.  
Lagunek irri-zaunka egin zuen pozik eta harro: "UAU!"



IRRIA ETA SARRIA. IRRI-SARRI.

IRRIA ETA GORRIA. IRRI-GORRI


IRRIA ETA HERRIA. IRRI-HERRI.

IRRIA ETA HARRIA. IRRI-HARRI

IRRIA ETA BERRIA. IRRI-BERRI.

Martinbertso pozak txoratzen zegoen.  
—Atsegin dugu irri-sarria, sarri-sarri egin behar delako irri.  
Irri-gorria da irrik biziarena.  
Irri-berria. Egin irri mila bider, eta aldi bakoitzean irri berri bat aterako zaizu.  
Irri-harria. Irria kutsatu egiten da. Bat hasi eta denok bukatzen dugu irriz, baita harriak ere.  
Irri-herria. Maitagarria da irri egiten dakien herria. Halakoxea da gure herria, Euskal Irri-Herria!  
Horregatik gara gu Irrien Lagunak, eta irri bat margotu nahi diogu munduari.





IRRIFAR LARANJA BAT MARGOTU DIOGU EGUZKIARI,  
GOIZERO EGIN DIEZAGUN ARE KOLORETSUAGO ARGI.  
ESNATU DEZAN BIHOTZ BARRUTAN  
LO DUGUN BIZIPOZ HORI.



IRRIFAR POTOLO BAT MARGOTU DIOGU LAINO BELTZARI,  
ORAIN EURIA MILAKA TANTA KOLORETSUTAN DU ARI,  
ZIPRIZTINETAN BIZIA EMANEZ  
GURE HERRI ZURI-BELTZARI.



IRRIFAR IHESKOR BAT MARGOTU DIOGU HEGOHAIZEARI,  
SEKULA EZ DA BERRIZ IZANGO BERRI BELTZEN MANDATARI.  
KONTU ZAHARREN DOINUAN ORAIN  
FIRI-FIRI TXISTU DAGI.



IRRIFAR ARGITSU BAT MARGOTU DIOGU ILARGIARI,  
ORAIN ILBEHERETAN ZILARREZKO IRRIFAR FIN-FINA DAGI.  
ZERUTIK JAIKI TA BILTZEN DA  
AMETS GAIZTOEN EHIZTARI.





IRRIFAR ERRALDOI BAT MARGOTU DIOGU MUNDU ZAHARRARI,  
BERE BURUARI BIRAN DOAN NAHIGABEKO BIDAARI.  
MUNDUKO HERRI GUZTIETAN IRRI  
ZATI BAT GERATU BEDI.



IRRIFAR TXIKITXO BAT MARGOTU DIOT NEURE BURUARI,  
EGUZKI, ILARGI, HEGOHAIZE, MUNDU ZAHAR ETA EURI.  
DENAK KEINUKA ARI BAITIRA  
IRRI EGITEN DUENARI.

Elkarrekin pentsatzeko koadrila! FILOSOFO TXIKIAK



MIXINA



PERU



XERRI



MOKOFIN

# ZER DA LAGUN BAT ?



UFALA!  
ZE ALTU  
GAUDEN!

NIK ATZO ALTUAGO  
ESKALATU NUEN  
HAITZETAN GORA NIRE ANAIA  
NAGUSIAREKIN. ZORAGARRIA  
IZAN ZEN!

ZE ZORTEA ZUREA! NIK  
EZ DUT ANAIA  
NAGUSIRIK!





1



2



5



6



7



3



4



8

9





ZURE USTEZ, ZERTARAKO

BALIO DU LAGUN BATEK ?









Txilibituk ez zekien, ordea, Pirritx haurdun zegoenik, eta ez zekien haurdunek, umea izan baino lehenxeago, urak botatzen dituztela. Berak ur-putzu bat ikusi zuen, eta Pirritxek pixa egin zuela pentsatu zuen.

—Aizu, parkean ezin da pixarik egin! Debekatuta dago!

Pirritxek ezin zuen ezer esan; haur-minek ez zioten hitz egiten uzten. Lagun asko haserretu zen Txilibituekin, Pirritxi errieta egin ziolako. Eta hozka egin zion.

Porrotzek kargu hartu zion udaltzainari.  
 —Errieta egitea ere debekatuta egon beharko luke, aizu. Ez al duzu ikusten Pirritx haurdun dagoela, kaikua!  
 Pirritxek gero eta min handiagoa zeukan.  
 —Pirritx ospitalera eraman behar dugu berehala! —garrasi egin zuen Marimototsek.  
 Bat-batean, Txilibituk korrika alde egin zuen.  
 —A zer laguntza! —esan zuen Porrotzek—. Debekatuta egon behar luke korrika alde egiteak, inork laguntza behar duenean.



A ZER  
LAGUNTZA!

Aiii!



Handik pixka batera, udaltzainen auto bat parkera sartu zen, sirena joz.  
—Sartu barrura denok, ospitalera eraman behar dugu zuen laguna —esan zuen Txilibituk autoaren leihotik burua ateraz.  
Marimototsek autoan sartzen lagundu zion Pirritxi.



Porrotx eta Lagun ere autoan sartu ziren.  
—Barkatu, lehen ez naiz konturatu zuen laguna haurdun dagoela.  
—esan zuen Txilibitu udaltzainak umil- umil.  
Marimototsek garrasi egin zuen.  
—Azkar! Edo autoan jaioko dira haurrak!  
Txilibitu udaltzainak azeleragailua sakatu zuen, eta autoa ospitalerantz abiatu zen ziztu bizian.







# Marikalanbre

ZENBAKIEN MISTERIOA!

Ni Marikalanbre naiz. Ume txikia nintzenean, kalanbre bat jaso nuen. Etxekoak asko beldurtu ziren, aita eta ama batez ere. Amona ez, amonak barre egin zuen.



Amona, txikia zenean, tximista batek harrapatu zuen azpian. Hori okerragoa da. Amonak oraindik txinpartak botatzen ditu hatz puntetatik, tximista haren kulpagatik. Horregatik jarri zioten izen hori: Maritxinparta.

Nik kalanbrea jaso nuen, eta horregatik naiz Marikalanbre. Amonak esaten du kalanbrea eta txinparta elektrizitatearen misterioak direla. Nik asko maite dut amona, magikoa da.

ELEKTRIZITATEAREN MISTERIOA...



Elektrizitateak ahalmen miresgarriak ematen dizkigu amonari eta bioi. Nik oraindik ez dakit zer ahalmen ditudan. Amonak esaten dit lasai egoteko, agertuz joango zaizkidala eta. Bizitza misterioz beteta omen dago, eta horiek pixkanaka deskubritu behar omen dira.

Zenbakiak, adibidez, misteriot suak omen dira. Amonak eta biok zenbakiekin jolas egiten dugu, eta oso ondo, oso ongi pasatzen dugu.



BAT, Martin parrat,  
BI, Martin ipurdi.  
HIRU, kolkoa bete diru.  
LAU, sardina bakailau.  
BOST, kaketan plost.

SEI, sillan eseri.  
ZAZPI, katuari xapi.  
ZORTZI, burua bete zorri.  
BEDERATZI, txirristatik jaitsi.  
HAMAR, txakurrak marmar.



ETA ZERO? O

EZ HOTZ ETA  
EZ BERO!



Nik, egia esan, ez diet magiarik ikusten zenbakiari. Orduan amonak ipuin bat kontatu zidan.





» Behin, jakintsu batek xakea asmatu zuen. Errege bati azaldu zion zertan zen jokoa. Erregeari asko gustatu zitzaion, buru azkarra behar delako jokatzeko. Eta opari bat egin nahi izan zion jakintsuari.

—Eskatu nahi duzuna! Urrea, bitxiak, palazioak... nahi duzuna.

»Jakintsuak gari aleak eskatu zizkion.

—Garia besterik ez! Jā jā a! —barre egin zuen erregeak.

—Xakeko taulak 64 lauki dauzka, jauna —esan zion umil-umil jakintsuak—. Lehenengo laukian gari ale bat jarriko duzu. Bigarrenean bi. Hirugarrenean lau. Laugarrenean zortzi. Eta horrela 64. laukira heldu arte. Laukitik laukira beti dobla jarri, aurrekoaren bi halako.

Niri tontakeria iruditu zitzaidan. Baina amonak esan zidan, jakintsu tontorik ez dagoela, eta egiteko aproba.

Aurreneko taulan ale bat jarri nuen. Bigarrenean bi. Hirugarrenean lau...



—Jo! Amona! Ezinezkoa da. la infinitua da. Amonak barre egin zuen. Esan zuen munduan ez dagoela behar beste garirik lauki guztiak betetzeko. Munduko itsaso guztietan garia ereinda ere, ez genukeela hainbeste gari lortuko.

Kalkuluak egiten jarraitu nuen nik:

—18.446.744.073.709.551.615 gari ale!!!

—Erregeak ezin izan zion inoiz ordaindu agindutakoa jakintsuari.


—A zer errege tontoa! Eta zer egin zuten orduan?

—Erregeak kontseilari hartu zuen jakintsuari. Erregea tontoa izan baitaiteke, baina kontseilaria ez.

Amona kontseilari aparta litzatekeela pentsatu dut nik.







Nagore medikua ospitaleko atarian zegoen. Bat-batean, udaltzainen auto baten sirena-hotsa entzun zuen.

Txilibitu udaltzaina, Porrotx, Lagun, Marimotots eta Pirritx autotik irten ziren.

Esku-ohet batean etzanarazi zuten Pirritx eta erditze-gelara eraman zuten.

Laguni ez zioten ospitalera sartzen utzi.

—Txakurrek debekatuta dute sarrera —esan zuen Txilibitu udaltzainak.



Lagunek marmar egin zuen haserre, "Grrrr!".

—Lasai, Lagun, nik zainduko dut Pirritx, eta inori hozka egin behar bazaio, abisatuko dizut.

—lasaitu nahi izan zuen Porrotek txakur leiala.

Txilibitu udaltzaina txakurrarekin geratu zen kanpoan.

Erditze-gelan, Pirritx erditzen hasi zen. Indar eta ahalegin handiak egiten zituen, hurrei jaiotzen laguntzearren.

Porrotxek garrasika animatzen zuen:

—Animo, Pirritx! Badatozela, badatozelaaaaaa!

Neska etorri zen aurrena, eta mutila ondoren. Bikiak izan baitzituen Pirritxek.



Nagorek irribarre batekin eman zien ongi etorria bi ume jaio berriei.

—Kaixo, txikiak! Ongi etorri mundura!

Bi haur txikiak barrez eta irriz erantzun zioten. Pirritxi besoetan jarri zioten bere alaba jaio berria.

—Zer izen jarriko diogu neskari? —galdetu zuen.

—Lore! —esan zuen Marimototsek—. Udaberriko loreak bezain ederra delako.

Oso izen polita iruditzen zitzaien guztiei.

Nagorek Porrotxen besoetan utzi zuen beste haur jaio berria.



ZER IZEN JARRIKO  
DIOGU NESKARI?



Porrotx oso urduri jarri zen; ez zekien zer egin ume hankagorriarekin.

—Ai! Aiii! Aiiii! Aiiiiiii!!!

Eta besoetatik erori zitzaion haurra. Baina umeak ez zuen negarrik egin; alderantziz, lurretik jaso zutenean, barre egiten zuen.

Lorek ere irri egin zuen.

—Zer izen jarriko diogu mutilari? —galdetu zuen Pirritxek.

Nagorek tiritita bat jarri zion buruan. Porrotxek begiratu zion, eta esan zuen:

—Pupu deituko diogu.

Pirritxek irribarre egin zuen:

—Oso ongi. PUPU ETA LORE! IRRIEN LAGUNAK!





ZERI BEGIRA ZAUDE,  
LARGABISTA JAUNA!

Largabista j auna bere largabistatik apartatu zituen begiak.

—Dena ongi doa! —esan zuen pozik—. Hodeiak ikusten dira. Bikain! Ipuin berriak izango ditugu!

—Erotuta al zaude, Largabista j auna? Zer ikusteko daukate hodeiek eta ipuinek? —Marimototsek ez zuen ezer ulertzen.

Largabistak beti esaten zuen gauza guztiek harreman handia daukatela beren artean. Naturan gertatzen diren gauzek zerikusi handia dutela gure eguneroko bizitzan. Gu ere naturaren parte garelako. Eta horregatik dela hain inportantea natura zaintzea eta maitatzea.

—Hodeirik gabe, adibidez, ez legoke ipuinik. Begira:



NON HODEIA, HAN EURIA,  
NON EURIA, HAN URA.

NON URA, HAN ZUHAITZA,  
NON ZUHAITZA, HAN EGURRA.

NON EGURRA, HAN PAPERA  
NON PAPERA, HAN IPUINA.



ETA IPUINA  
POLITA EZ  
BADA?

BESTE  
IPUIN BAT  
AUKERATU!

—Nik natura maite dut, baina zuri ez dizut tutik ere ulertzen —kexatu zen Marimotots.

Largabistak irribarre egin zuen.

—Euria izateko, hodeiak behar dira.

Ura izateko, euria egin behar du.

Zuhaitzek ura behar dute bizitzeko.

Egurra lortzeko, zuhaitzak behar ditugu.

Papera egurretik lortzen da.

Eta ipuin bat irakurtzeko papera behar da.





Largabista j auna bere largabistatik apartatu zituen begiak.

—Dena ongi doa! —esan zuen pozik—. Eguzkia atera da. Bikain! Eztia izango dugu j ateko.

—Erotuta al zaude, Largabista j auna? Zer ikusteko daukate eguzkiak eta eztiak? —Marimototsek ez zuen ezer ulertzen.

Largabistak gogorarazion naturan gertatzen diren gauza guztiek harreman estua dutela beren artean, eta zerikusia handia dutela gure eguneroko bizitzan.

—Eguzkirik gabe, adibidez, ez genuke ezirik izango. Begira:

NON EGUZKIA, HAN ZELAIA,  
NON ZELAIA, HAN LOREA.  
NON LOREA, HAN ERLEA.  
NON ERLEA, HAN EZTIA.



—Oraingoan dena ulertu dizut —poztu zen Marimotots—. Baina gauza bat gaizki esan duzu, Largabista j auna. Eguzkia dagoen tokian ez da egoten beti zelaia; basamortua egon liteke.



—Bai, baina gogoratu lehen hodeiak zeudela eta euria egin duela. Euria egiten badu, basamortua ere zelai bihurtzen da. Dena lotuta dago naturan.

—O! Egia! Zer j akintsua zaren, Largabista j auna?

—Goazen etxera, ezta j atera gonbidatu nahi zaitut. Eta ipuin bat irakurriko dizut. Gaur euria egin du eta eguzkia atera da. Dena ongi doa, eta ospatu egin behar dugu.





# OLIBATXO



KAIXO, LAGUNAK! NI OLIBATXO NAIZ! ETA ETXEKO OLIOAZ GAUZA ASKO IKASIKO DITUGU ELKARREKINI!

EZ BOTA ERABILITAKO OLIOA HARRASKATIK BEHERA!



ETA ERABILITAKO OLIO ZIKINA... HARRASKATIK BEHERA, EZTA?



EZZZZZ, PORROTX!!!

OLIO ZIKINAK INGURUNEA KUTSATZEN DUI! ETA ETXEKO HODIAK TRABATU EGITEN DITU!



OLIOA BIRZIKLATU BEHAR DA, OSO INPORTANTEA DA NATURA ZAITZEKO.



OLIOA BIRZIKLATUZ GERO, NATURA BI ALDIZ ZAITZEN DUGU!

BEGIRA ORAIN, NOLA EGITEN DEN OLIOA.







AURRENA OLIBAK JASO BEHAR DIRA! UMM, ZER GOXOAK!

GERO, LANTEGI BATEAN OLIOA ZAPALDU ETA ZUKU BAT ATERATZEN DA: OLIBA-OLIOA!



LANTEGITIK DENDARA ERAMATEN DUTE, ETA GUK DENDAN EROSTEN DUGU!



ETXEAN OLIOA ERABILI ETA GERO...

...EZ BOTA HARRASKATIK BEHERA, POTE BATEAN GORDE!



OLIO-POTEA EDUKIONTZI BEREZETAN BOTA!



ERABILITAKO OLIOA BIRZIKLATU EGITEN DA...



ETA BIODIESELA EGITEKO ERABILTZEN DA! BIODIESELAK GASOLIO NORMALAK BAINO ASKOZ GUTXIAGO KUTSATZEN DU INGURUNEA!

**EZ BOTA**  
ERABILITAKO OLIOA HARRASKATIK BEHERA!

ETXEKO HODIAK TRABATU EGITEN DIRA.

INGURUNEA KUTSATU EGITEN DUGU, URA BEREZIKI.

ERABILITAKO OLIO LITRO BATEK MILA LITRO UR KUTSATZEN DU.

**BIRZIKLATU**  
ERABILITAKO OLIOA!

**BIODIESELA**

ERABILITAKO OLIOA BIRZIKLATUZ, BIODIESELA LORTZEN DA (GASOLINA NORMALAK BAINO ASKOZ ERE GUTXIAGO KUTSATZEN DU).

**EKOGRAS**

ERABILITAKO OLIOA BIRZIKLATZEN AITZINDARIA DA EKOGRAS ETXEAI

☎ 902 366 251  
www.ecogras.es



# ANE PIRATA ETA PATAKON



ETA? ZUK ZER EGITEN DAKIZU?

BIKAIN ENTZUTEN DUT! BELARRI FIN-FINA DAUKAT!

JOI ONDO ETORRIKO ZAIGU ONDO ENTZUTEN DAKIEN NORBAIT!

GRRR!!!

Patakona eta Ane Pirata tripulazioa hautatzen ari dira beren barku piratarako. Pirata izateko birtute jakin batzuk behar dira.

ETA? ZER IZEN DUZU?

KAXIANO BELARRIO! ETA TXANPONA BOST XENTIMOKOA DA.

ONGI ETORRI GURE BARKURA, KAXIANO!

GRRR!!!

A ZER BELARRI FINA!

Adibidez, itsasora irten eta ezin da pirata bat mareatu. Eta ausartu izan behar da. Ez du edonork balio pirata izateko.

KATXIPORRETA! KAXIANO ITSUA DA!

HURRENAI!

BAINA INORK BAINO HOBETO ENTZUTEN DU!

Denok ez gara berdinak. Eta sarritan gertatzen da batek soberan duena faltan duela bestek.

PRIMERANI HITZ MOTZEOA ETA BEGI ZORROTZEOA! HALA BEHAR DU PIRATA BATEK! BARRURA!

AMAIA BEGILUZE! NIRE LAGUNA DA! BISTA APARTA DAUKA! EZKUTUAN DAUDEN GAUZAK ERE IKUSTEN DAKI!

HURRENAA!


ONGI ETORRI GURE BARKURA, AMAIA!

Barku batean gauzak orekatzen jakin behar da. Amaia Begiluzek eta Kaxiano Belarriok bikote miresgarria osatzen dute, batak behar duena bestek baitauka.




MARGOTU ZENBAKI BAKOITZA  
DAGOKION KOLOREAREKIN !

- 1 2 3 4 5 6 7  
 ● ● ● ● ● ● ●



AMAIA BEGILUZEK ETA KAXIANO  
BELARRIOK AURENA ELKAR TOPATU  
BEHAR DUTE, ETA GERO BIEK  
BATERA ALTXORRAREN BILA JOAN.  
ERAKUTSIEZU BIDEA !!!







## OIHANEKO ERREGINA

Oihaneko erregina da Maialen Lujanbio. Bertsolaritzaren oihanekoa. Nola kabitzen dira bertsolari bakarrean lehoi arraren ile luze kizkurra eta begirada sakona? Lehoi emeen indarra eta lehoi-kumeen goxotasuna? Behiek bezala hausnar egiteko gaitasuna? Txoriek bezala kantatzekoa? Ornitorrinkoaren berezitasuna? Tximeletaren kolorea? Zapaburuaren eboluzioa? Inurrien isiltasuna eta kilima? Katuaren abilezia? Marrumaka, miauka, zaunka, erremerreka, txio-txikoka, sigi-sagaka, orroaka... Kanta ezan, Maialen, kanta ezan zoologikotik ihesi!!!!

Euskal Herriko txapelduna da gure Hernaniko perla badakizue ile beltzean zapia janzten duela BECen guztiok negar malkotan zorionean geundela hark historian lehenengo aldiz magia balitz bezela biak batera jantzi zituen zapia eta txapela!

Erdi lehoia erdi katua, erdi ornitorrinkoa, oilar artean txioka hasten atrebitu zen txittoa txapel ta guzti Euskal Herriko urrezko perretxikoa baina zarenez neska jatorra eta bihotz handikoa txapela baino nahiago dugu txapelaren azpikoa!

Ikastolako bertso eskolan gazte-gazte hasi zena Maialen txiki hura handituz joan da urtetan barrena baina oraindik ez zaio galdu ume-irrifar gardena mila kolore elkartu eta zuretzako da, morena, Euskal Herriko haurren partetik irrifar potoloena!



## ZER DA IRRIEN LAGUNAK KLUBA?

- ✓ Pirritxek bikiak izan ditu, **PUPU ETA LORE**, eta orain pailazoak jaitu berrien **hozkontzaz** ere arduratu beharko dira.
- ✓ Sudur gorri laguntzeko, **Berria** egunkariak, **Ekar** argitaletxeak eta **Katziporreta** pailazo taldeak sortu duten kluba da Irrien Lagunak. Ateak zabalik ditu klubaren helburuekin bat egiten duten guztientzat.
- ✓ Euskal Herriko haurrak, gurasoak eta hezitzaileak bildu nahi dituen kluba da, Pupu eta Lore guztien artean hezteko. **Ikuspegi hezitzailea** izango du, beraz.
- ✓ Pupu eta Loreri, eta hauekin batera Euskal Herriko haur guztiei, koloretako mundua eraikitzen lagundu nahi die klubak, hainbat balore sustatuz, beti ere **euskara** eta **Irria** oinarri hartuta.

## ZER SUSTATUKO DU IRRIEN LAGUNAK KLUBAK?

- ✓ Euskal Herrian pentsaera, kolore eta kultura ezberdinetako jendea bizi denez, **aniztasuna** balore bezala aldarrikatu nahi du klubak, besteak ezagutzuz eta maitatuz gero aniztasuna aberatsa baita beti.
- ✓ Euskara: euskaratik eta **euskaraz**, euskal kulturako esparruak ezagutaraziko dizkie haurrei.
- ✓ **Bizikidetzari** buruzko kultura berritzailea sortzen lagundu nahi du, errespetuan eta elkarrizketan oinarrituta, oinarriko baloreak sustatzeko: berdintasuna, errespetua, elkarrizketa, parekidetasuna, elkartasuna, eta askatasuna.
- ✓ Ekologia: **natura** babestea, iraunkortasuna bermatzea, baliabideak zentzumenez erabiltzea, eta kolore guztien artean berdea zein ederra eta garrantzitsua den ikusarazi nahi du.

## NOLA EGIN DAITEKE KLUBEKO KIDE?

- ✓ irrienlagunak.com webgunean izena emanda. Doan, noski.
- ✓ Irria aldizkariaren harpidedun eginda. Edonor harpidetu daiteke, baita ikastetxeak eta elkarteak ere.

## 'IRRIENLAGUNAK.COM' WEBGUNEAN

- ✓ Haurraren, gurasoen, eskolaren eta klubaren arteko eguneroko harremana bermatuko du.
- ✓ Klubaren eta klubeko kide guztien webgunea da. Etengabe eguneratuko da, eta hainbat atal izango ditu: irria telebista, pertsonaiak, aldizkaria, zer egin, agenda, zorion agurrak, kide bakoitzaren txokoa eta askoz gehiago!



## IRRIA ALDIZKARIA

- ✓ Klubaren aldizkaria da. Hilean behin argitaratuko da, eta 44 orrialde izango ditu.
- ✓ Klubeko pertsonaien abenturak, haurrentzako jokoak, bertsolaritzarekin lotutako kontuak eta beste hainbat atal izango ditu.
- ✓ Kioskoan salduko da, 5,75 euroan.



## HARPIDEDUNEN ABANTAILAK:

- ✓ Harpidedunek, etxean jasoko dituzte 10 zenbakiak, urtean 45 euro ordainduta.
- ✓ Harpidedunek hainbat abantaila izango dituzte klubaren produktuetan, pailazoan ikuskizunetan eta beste hainbat eskaintzatan.

## IRRIA ALDIZKARIA HARPIDETZA ORRIA

'Irria' aldizkaria Irrien Lagunak klubaren aldizkaria da. Puntako marrazkilariek, idazleek eta bertsolariek sortutako irudiz, testuz eta edukiz osatuta dago. Klubeko pertsonaien abenturak, jokoak eta baloreak era dibertigarri eta hezitzaile batean azaltzen ditu, klubeko kide diren haurren, ikastetxeen eta elkarten parte hartzea bermatuz. Aldizkariaren harpidetza eginda, zuzenean klubeko kide bihurtuko zara eta hainbat abantaila izango dituzu, Irrien Lagunak klubeko txartela jasotzearekin batera.

[www.irrienlagunak.com](http://www.irrienlagunak.com) webgunean aurkituko duzu informazio gehiago. Bertatik ere egin dezakezu harpidetza.

## BAI, ALDIZKARIA JASO NAHI DUT

IZENA:

ABIZENA:

ABIZENA2:

HELBIDEA:

POSTA KODEA:  HERRIA:  HERRIALDEA:

TELEFONOA:  POSTA ELEKTRONIKOA:

Harpidetza orri hau moztu eta bidali sobre batean sartuta ondorengo helbide honetara:

Irria aldizkaria  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20.140 Andoain (EH)

Zure familiako beste partaideren bat Irrien Lagunak Klubaren Kide egin nahi baduzu edo eta bankuko datuak telefonoz eman nahi badituzu markatu kutxa hau  eta zuk adierazitako telefonora dei egingo dizugu Irrien Lagunak bezero arretatik. Bezeroarentzako arreta zenbakia : 902 82 08 06 Astegunetan 8.30-19.30 / Larunbatetan 9.00-13.00

## HARPIDETZA: URTEAN 10 ZENBAKI = 57,50 € 45 € (%22ko deskontua)

ORDAINTZEKO MODUA: BANKU BIDEZ  BANKETXEA:  (IZENA, HERRIA)

KONTUAREN JABEA:  (IZENA, ABIZENAK)  NAN:  EHNA/NAN/IFZ  SINADURA ETA DATA:

ZENBAKIA:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetzeko, jakinarazten dizugu lagatako Datu Pertsonalak fitxategi automatizatu batera gehituak izango direla. Fitxategi honen titulartasuna Irrien Lagunak s.l.-rena da eta Irrien Lagunak s.l.-k editatu, argitaratu aeta banatzen duen Irria Aldizkariaren harpidetzaren kudeaketarako bai eta harpideduna Irrien Lagunak Klubaren Kide egin eta Kide txartela kudeatzeko erabiliko direla jakinarazten zaizu datu lagatzailea zaren heinean. Nolanahi izango dituzu sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak, arazuz ezartzen denari jarraituz posta arruntaren bidez Irrien Lagunak s.l., Martin Ugalde Kultur Parkea, 20.140 Andoain (EH) edo posta elektronikoren bidez helbide honetara harpidetza@irrienlagunak.com mezua bidalita.

IRRIARI baimena ematen diot harpidetza kuota (45 euro) nire kontutik kobratzeko.



# 15 URTEZ TINKO!

Tinko Euskara Elkarteak 1995. urtean hasi zuen bere ibilbidea, zine aretoetan euskaraz zuen hutsunea betetzeko. Haurranga zinea euskaraz ikusteko zaletasuna eta ohitura sortzeko eskola umeekin hasi ginen lanean, eskola orduetan filmak proiektatzen.

15 urtez haur eta gazteentzako balore pedagogiko haundia duten mundu osoko filmak kalitatez euskaratu eta material didaktikoa osatu dugu, ikastetxe eta irakasleei haurren hezkuntzan lagungarri zaien tresna ezin hobea eskainiaz.

15 urte hauetan proiektu honetan parte hartu, babestu eta lagundu diguzuen ikastetxe, irakasle, haur, guraso, zinema areto, lankide, Udaletxe, Aldundi eta Jaur-laritzari bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu.

**MILESKER AURRERANTZEAN ERE TINKO PARTE HARTZEN JARRAITZEAGATIK!**

- 61 Film Euskaratuak
- 4.500 Emanaldi
- 100.000 ikusle 2009an
- Guztira 1,2 Milioi ikusle!

